

ALTZAKO HARRIA PARKEA ESTALTZEAREN INGURUKO MOZIOA

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Josu Mirena Ruizek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, ondoko KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, Altzako haur jolastokiari estalkia jartzea dela eta. Gune Publikoen (Obrak eta Zerbitzuak) Batzordean urriaren 17an aurkezturiko interpelazioa da mozio honen aurrekaria.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko udaberrian, 7.742.322,63 euroko inbertsioak egitea onartu zuen alkateak. Inbertsio horien artean, Proiektu eta Obrak programako Altzako Parke bat Estaltzea izeneko 601.99.03 kontu saila dago eta 325.490 euro ditu.

Inguru hartan egindako partaidetza prozesu batean inbertsio hori lehenetsi zuten aurreko agintaldian.

Aurtengo urtarrilean, gai honi helduta, kontrol mozio bat aurkeztu genuen, Udalbatzak aho batez onartu zuena. Denok onartutakoa gogoraztearren, hauxe zioen:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio sei hilabeteko epean hasteko Altzako Harria parkeko haur jolastokiari estalkia jartzeko lanak.

Donostian 2016eko urtarrilaren 22an

Dagoeneko bederatzi hilabete pasatu dira, eta gai honi buruz ez dugu berririk izan. Hori dela eta, interpelazioa helarazi genion zinegotzi ordezkariari. Haren erantzunean, plan berezia dela-eta, atzerapenak eman direla argudiatu zuen, eta obraren esleipena kontuan hartuta, negurako ez dela bukatuta egongo. Egia esan, kudeaketa onaren adibiderik esanguratsuen ez da.

Beraz, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio obraren esleipena lehenbailehen egin dezala, ahalik eta eperik laburrenean, Altzako familiek gune estali honez disfruta dezaten.

Donostia, 2016ko urriaren 21a

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia

2011-
10655
01200
TE/E/
7300
ER/

2011-
10655
01200
TE/E/
4007

2011-
10655
01200
TE/E/
4007
ER/